



HEZKUTZA HELBURU NAGUSIAK

	Norbere buruarekiko harremana	Besteekiko harremana	Jainkoarekiko harremana
G. fisikoa	Gorputza	Errespetua	Izadia
	Bizimodu osasuntsua garatu; nork bere gorputzaren funtzionamendua eta garapena ezagutu, bere ezaugarriak bultzatu eta mugak onartu eta gainditu.	Beste pertsonen gorputza onartu eta errespetatu eta gizaki guztien segurtasun fisikoa babestu.	Gizakia Izadiko atal bezala, Jainkoaren egintza bezala aitortu eta bertan duen zeregina ulertu.
G. intelektuala	Sormena	Baliagarritasuna	Jakinduria
	Irudimen, berrikuntza, azterketa kritiko, ondorioztatze eta erabakitasun gaitasunak garatu.	Nork bere jakinduria gizartearen eraldaketa positiboaren zerbitzura jarri.	Gai erlijiosoa sakontasunez eta sen kritikoz arakatu, fedearen eta arrazoiaren arteko harmoniatik.
G. emozionala	Autoestimua	Elkartea	Maitasuna
	Norbere emozio eta sentimenduez jabetu, horiek naturaltasunez eta orekaz onartu eta bideratu.	Harreman sentibera, konprometitu, gizabidetsu eta sanoak sortzeko gauza izan.	Maitasunaren zentzurik sakonena aurkitu Jesusengan eta norbere bizitzara eraman.
G. soziala	Zabaltzea	Herritartasuna	Senidetasuna
	Inguruarekiko sentiberatasuna garatu, inguruarekin eraginkortasunez komunikatu, ideia berrietara ireki eta egokitasunez integratu.	Gizartearen eraldaketa positiboan gogotsu parte hartu, aniztasuna errespetatuz eta giza eskubideen eta demokraziaren alde konprometituz.	Gizaki guztienganako senidetasun sena garatu, behartsueneren aldeko aukerari lehentasuna eman.
G. espirituala	Barneratzea	Batasuna	Otoitza
	Norbere esperientzien esanahi espiritualak aitortu eta onartu.	Nork bere tradizio espiritualak ezagutu eta baloratu, gainerako pertsonena estimatu eta eliz bizitzan ekintzaile izanez parte hartu.	Jainkoarekiko bakarkako eta elkarteko bategitara zintzotasunez eta sakontasunez ireki.
Nortasunaren g.	Autonomia	Konpromisoa	Bokazioa
	Eskaut Legearen eta Ebanjelioaren balioekin arduratsua eta koherentea den bizitzarako egitasmo pertsonala garatu.	Gainerako pertsonen ezagutzan sakondu eta batez ere gizarte esparrurik hurbilenetan elkarte egitasmo konprometituak sortzeko gauza izan.	Jainkoak gutariko bakoitzarengandik zer nahi duen jakin eta nork bere bizitzara eraman.